



BILADI HADI

Hamaika begirada Palestinari Euskal Herritik

Biladi Hadi elkartasun brigada kulturala 2010ean joan ginen Palestinara elkartasuna adieraztera, eta herri bat ekarri genuen bueltan. Ekarritakoak gutxi du oroigarritik, eta asko, behar beste, konpromisotik. Gure bidaia joan-etorriko lan gisa ulertu genuen hasieratik. Hala, han ikusitakotik eta ikasitakotik abiatuta, Euskal Herrian hainbat eremutan ezagunak diren sortzaileekin elkarlanean, musika eta hitzak jarri genizkien bidaian egin genituen argazkiei, *Biladi Hadi* liburu eta musika diskoa argitaratzeko. Bi herrien arteko elkartasunaren beharra aldarrikatu nahi zuten olerki, bertso, testu, abesti eta argazki horiek guztiak ARGIAREN Biladi Hadi blogean argitaratu ditugu 2014an.

Lagin txiki bat ekarri dizuegu orriotara.

| AXIER LOPEZ |



BILADI HADI

AITOR ALUSTIZA



Nabi Saleh. Manifestazioak antolatzeagatik kartzelan sartu zuten Bassem Tamimi palestinarraren emazteari eta alabari piper-gasa botatzen ari zaie soldadu israeldar bat.

AXIER LOPEZ



Jerusalemgo Alde Zaharra. Palestinarren hiriburu historikoa 1967an konkistatu zuen Israelek armen indarrez.

AXIER LOPEZ



Israelen okupazioa argien ikusten den hirietako bat da Hebron. Alde Zaharrera sartzeko kontrolak etengabeak dira.

AXIER LOPEZ



Kufiyya, palestinarren zapia, mundu osoko iraultzaile eta ezkerreko militanteen ikur bilakatu da.

IRANTZU PASTOR



Israelgo armadak suntsituriko Negev herriko beduinoak manifestazio batean.

KOLDO ALZOLA



130.000 biztanle ditu Gazako Rafah hiriak. Hirutik bi errefuxiatu eremuetan bizi dira.

Metro bakar bat

AUTOA gidatzeko israeldar baimena berritzeko modurik ez du aurkitu emakumeak. Amman hirira joan behar izaten du, haraxe joaten da asperduratik irteteko, eta ez du hartarako ere eragozpenak izateko gogorik. Nahiago luke Jerusalemera bidaia gogaikarri hau egin ez, ezin duelako hiri hain hurbil eta hain urrun horretan egon. Qalandiako kontrolgunea pasatutakoan ahaide batekin geratu da, handik aurrerako bidean gizon baten laguntza izateko.

Berrogeita hamar metro egin zituen, emakumeak, oinez kontrolgunerantz. Oinezkoentzako pasalekura iristean, hautsa larruan zehar eta brusaren botoi zuloetan barrura sartzen zitzaion. Hortik ez zela pasatuko deliberatu zuen, zalantzarik gabe. Ez zela hastioz, gaiztotasun eta lizunkeriak nahasturiko izerdi zirkulu horretara sartuko. Bi gizon gazteren haragi irrikek estuturik imajinatu zuen, emakumeak, bere gorputza. Ez zuen masturbazioen gaia izan gura, ez zuen momentu baterako ere etzan nahi, manta horiaren azpian, haien fantasietako ohe zikinean.

“Gizon horietako bati jotzen badiot haien begiak harriaren antzeko bihurtuko dira”, pentsatu zuen emakumeak, eta pasa-lekuko arduraduna zen ofizialari begira.

Gauzak ahalik eta arinen egin nahi zituen, kontrolguneko atak itxi baino lehenago. Autoren ilarara joan zen arinka, eta bosgarren kamionetaren aurrera heldu zen. Oso urduri jo zuen kamionetaren leihoko kristala, txoferrari begira eta atzealdeko eserlekua galdezka bezala seinalatzen zuela.

“Bakea bedi zuekin!” agur esan zien txoferrari eta lagunari. “Bilera garrantzitsu batera noa. Ez dizuet enbarazu egingo...”.

Konfiantza handiarekin eseri zen, kamionetako atzeko eserlekuan, bere buruaz harro, biktoria historiko bat lortu balu bezala.

Txoferra gazte bizarduna zen, lasai tankerakoa, eta laguna ere halakoa zen, egokia itxuraz. Txoferraren eskuetan Koran txiki bat ikusi zuen, emakumeak. Grianaz ari zen txoferra irakurtzen, plazer ezkuturen bat

islatzen zuen bozez. Hiru autok pasatu zuten kontrolgunea eta, kamionetarako aurrera egin ahala, txoferrak Korana leitzen jarraitzen zuen.

“Eta kontrolguneako soldaduekin batera bere burua lehertzeko asmoa badu?” pentsatu zuen emakumeak. “Begi bistakoa da halako ideia bat duela. Ez dakit ihes egin ahal izango dudan; zerbait esaten badit, ezin izango dut alde egin!”

Eta orduan...

Auto bat geratzen zen aurrean bakarrik. Txoferrak Korana itxi eta, isilean, lagunari eman zion. Grabagailua piztu zuen eta xeika *Behiaren sura* ari zen irakurtzen...

“Hauekin batera hilko naiz”, pentsatu zuen emakumeak. “Kanpora

irten nahi dut, negar egin nahi dut, heroia izan nahi dut nik ere akaso...”.

Xeikaren boza tonoz igo zen, emakumeak bere pentsamendua baizik entzuten ez zituela: “Ez dut minik izango. Birrinduko naiz. Espero dut dinamita nahikoa izatea sufritu beharrik ez izateko...”.

Kontrolgunean ia bertan zeuden jadanik.

Txoferrak atzerako ispilutik begiratu zion. Emakumeak sosegu begirada itzuli zion, eta etsipen irribarra.

Metro bakar batera zegoen, kontrolgunea.

Raeda Taha

Itzulpena: Joseba Sarrionandia



ogiaren egia

Ogi biologikoak

Harri errota
xehetutako
irinarekin
egindako
ogiak

Orantza ogiak

Galparsoro
OKINDEGIA

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074
www.galparsorookindegia.eu

CuadraBus

www.cuadrabus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxes: 945 892 215
info@cuadrabus.com